

EUSKAL HERRIA SOZIALISTA

Euskal Herriko aldizkari marxista

www.euskalherriasozialista.net

63 zenbakia - euro 1
laguntzarekin: 2 euro

**Autodeterminazio
eskubidearen eta
presoen amnistiaren alde**



**Gure indarra kalean dago!
Itunik ez EAJrekin!**

2. Editoriala. PSEk eta EAJk indarrak batu dituzte langile klasearen aurkako eraso politikekin jarraitzeko. Kaleak hartu behar ditugu! Gehiengoaren aurkako akordioak ezin dio aurre egin mobilizazioen indarrari!
6. Autodeterminazio eskubidearen eta presoen amnistiaren alde. Gure indarra kalean dago! Itunik ez EAJrekin!
8. Kataluniaren autodeterminazio eskubideari bai! Eskuin katalanarekin itunak egiteari ez! CUPEk Convergenciarekin apurtu behar du! • 11. AEB: polarizazio eta konfrontazio politikoa kapitalismoaren bihotzean • 14. Gobernu zentralak errebalida frankistak indargabetu ditu. Borrokari esker lortu dugu!

PSEk eta EAJk indarrak batu dituzte langile klasearen aurkako eraso politikekin jarraitzeko

**Kaleak hartu behar ditugu!
Gehiengoaren aurkako akordioak ezin
dio aurre egin mobilizazioen indarrari!**

PSEren eta EAJren arteko koalizioetik jaio den Urkulluren gobernu berriak ez du ezer berritik, kontseilari berberak baitaude: Arantza Tapia Ekonomia kontseilaria, Jon Darpón Osasun kontseilaria, Cristina Uriarte Hezkuntza kontseilaria eta Josu Erkoreka bozeramailea. Hain zuzen ere, pasa den legegintzaldian polemika gehien sortu duten politikak errepikatzen dira: Ekonomia, Osasuna eta Hezkuntza. Argi eta garbi geratu da EAJren planak ez direla batere aldatu.

PSE euskal burgesiaren besoe-tan etortzearen truke hiru kontseilaritza jaso ditu: aurrekontu osoaren %3,6 baino ez (11.000 milioi eurotik 400 soilik). Horrek EAJri gainerako %90 baino gehiagoren gaineko kontrola ematen dio.

Duela aste batzuk, Madrilen PSOEek langileei traizio lotsagarria egin die abstentzioarekin Mariano Rajoyri gobernua oparitzuz; orain PSEek, Pedro Sanchezen le-rokoek, bide berbera jarraitu dute. Madrilen abstentzio sozialista kritikatu arren, hemen ez daukate inolako arazorik Eusko Jaurlaritzaren kontrola EAJri eskaintzeko. Bide horretan itxi zuen akordioa Iñaki Arriolak, Urkulluren gober-nuko ordezkari sozialistak, “ideo-logia” ezberdinek osatutako gober-nu bat aldarrikatuz.

Azken urteetan egon den ezker-rrerako saltoak eta Euskal Herrian ere izan diren mobilizazio handiek egoera erro-tik aldatu dute. Aldake-

ta horiek ez dira oharkabeen pa-sa EAJrentzat; eta orain bere posi-zioa egokitzen ari da Parlamentua-ren kontrola mantendu ahal izateko. PSE gober-nuko bazkide aukeratzeak estrategia horri erantzuten dio soilik: EH Bilduk (18), Podemosek (11) eta PSE-PSOE-k (9) aurrera eraman le-zaketen edozein ekimen sozial moz-tea da helburua, Rajoyren gobernu-ari LOMCE edo Mozal Legearekin gertatzen ari zaion modu berberean.

Azken urteotan izandako mugimenduek beren arrastoa utzi du-te ezkerreko alderdietan ere, bere alderdi sozial eta borrokalaria-na erakustera bultzatu dituzte. Na-

hikoa da Otegiren espetxe irtee-ra gogoratzea. Otegik berak publi-koki aldarrikatu zuen bere izaera marxista eta etxe kaleratzeen aur-kako eta bestelako gizarte mugimenduen aldeko borrokak aipatu zituen. Era berean, hauteskundeen aurreko hilabeteetan ikusi genuenez, Ezker Abertzaleak mobiliza-zio garrantzitsuak antolatu zituen kalean borrokan dagoen jendearen-gana gerturatzeko, emakumearen eskubideen alde, langileen eskubi-deen alde... Dena dela, EH Bilduko zuzendaritzak ez du aukerarik gal-du EAJri bere burua eskaintzeko, bai hauteskunde kanpaina-n hasi





zenean bai hauteskunderen ondoren. Baina txapela berarekin bi buru esaltzea ezinezkoa da: langileak ala euskal burgesia defenda daitezke. Hori izan da EH Bilduk bere diskurtsoan izan duen kontraesana. Alde batetik klaseko diskurtso soziala errekupearatu duen arren, beste aldetik EAJri eskua luzatu dio, nahiz eta honek murrizketak aplikatu dituen osasunean eta hezkuntzan, etxe kaleratzeen arduraduna izan den, Kutxabanken pribatizazioa aurrera eraman duen, Ertzaintza erabiltzen duen mobilizazioak erreprimitzeko eta argi eta garbi adierazi duen autodeterminazio eskubidea ez zaiola interesatzen. Autogobernu gehiago besterik ez du nahi euskal burgesiak pribilegio gehiago pila ditzan.

Gazte eta langile askok Elkarrekin Podemos ikusi zuten bere haserrea azaltzeko aukeratzat, azken hilabeteetako mobilizazio handien espirituak bultzatuta. Hala eta guztiz ere, eskuineranzko joera erakutsiz, kaleko borroka sozialaren planteamendurik gabe eta Pili Zabalarren to-

nu light-aren ondorioz, etsipenezko efektu bat sortu zuten. Dena den, azpimarratu behar da Elkarrekin Podemosen EAJ-EH Bilduren koalizio gobernu bati ezezkua eman izanak ezkerretik dinamitatu zuela EH Bilduk EAJrekin modu sako-nagoan gobernu plan bat osatzeko izan zezakeen tentazioa. Horrela, Ezker Abertzalea oposizioan ezkerreko indar politiko nagusiaren papera betetzeko tokian kokaturik geratzen da.

Edonola ere, lehenengo inbestidura saioan bertan Elkarrekin Podemos saiatu da EAJrekin ere hitz egiten eta negoziatzen; eta hori azken hauteskundeetako emaitzak eman dizkion indarraren aurkako norabidean doa. Hori Araban Errejónen aldeko sektorearen zuzendaritzak juntetako taldearen gehiengoari irekitako espediente disziplinarioa bezain kontraesankorra da. Juntero horiek diputazioan EAJren aurrekontu liberal eta antisozialei ezezkua bozkatzeko nahia azaldu zuten, eta bozketan abstenitu eta Izquierda Unidaren osoko zuzenketa-

ren aldeko botoa eman zuten. Podemosen barruko borrokek erakusten dute, batetik, eskuin aldetik dituzten presioak eta, bestetik, langile klasearenak talka egiten dutela.

EAJk ez ditu eskubide demokratikoak defendatzen, baizik eta gehiengoaren kontura negoziak egiteko "bere eskubidea"

EAJ-PSEren gobernuaren lehen ekimen bateratua autogobernuari buruzko eztabaida izan da, eta helburua Gernikako Estatutua eraberritzeko kontsentsua lortzea izan da. Jeltzaleek eta PSEk erregistratu zuten testuak autogobernu sistemaren erreforma "berme judizial eta legalekin eguneratzeko prozesua" mahai gainean jartzea planteatzen zuten. Hori "indarrean dauden arau eta jarraibide legalen arabera, bizikidetzatza demokratikoan sakontzeko helburuarekin eta kohesio eta justizia sozialean sakontzeko" bidean gauzatuko litzateke. Bide horretan,

4. ORRIAN JARRAITZEN DU



EAJko agintarien adierazpenak argigarriak izan dira. Urkulluk inbestidura saioan zin egin zuen ez zela “planteamendu gauzaezin eta jasan ezin eroriko”. Bestalde, Andoni Ortuzarrek euskal nazionaren onarpen gradualerako joeraz hitz egin zuen: “Alderdi honek ez du hitz ematen zerura edo gailur menderaezinera iritsiko garenik. Ez dago ilusio faltsua ereiten duen gezurra baino gauza pozoitsuagorik”. Hala ere, Joseba Egibarrek aldebakarreko bidea, Katalunian egin bezala, egitea baztertu zuen: “Alderdi honek ez du inoiz hartuko irteerarik gabeko biderik”.

Eskubide demokratiko nazionalen eta sozialen aldeko borrokan EAJren inguruan antolatutako euskal burgesia barrikadaren beste aldean egongo da aurrerapen demokratiko eta sozialak saihesteko. Hala erakusten dute mobilizazioak erreprimitzen dituztenean eta eskubide demokratikoak ukatzen dituztenean. Ikurrina nahi beste astinduta ere, beren ohiko gezurrarekin ezkututzen dute langile euskaldunok politika liberalen ondorioz egunero sufritzen dugun errealitatea. Hain zuzen ere, EAJk paper garrantzitsua jokatu du Mariano Rajoyren gobernu ahula sostengatzeko orduan; eta hori argi ikusi dugu espainiar

parlamentuan PP, PSOE eta Ciudadanosekin batera gastu muga onartu duenean; horrela, aukera ireki du 2017ko aurrekontuak onartzeko.

Itunik ez EAJrekin. Borroka da bide bakarra

EAJk bere burua kudeatzaile ontzat eta elkarriketaren defendatzailetzat aurkezten duen arren, ekin tzeke beste gauza bat erakusten dute. Azken bost urteetan Hego Euskal Herrian 1.600 milioi euro hazi da aberastasuna, baina langile klaseak 1.000 milioi euro galdu ditu. ELAk emandako datuen arabera, legegintzaldiko azken bi urteetan 142.000 lanpostu galdu dira EAEn eta 78.000 langabetu gehiago daude Nafarroan. Bestalde, kalitate baxuko lanpostuei dagokienez, Hego Euskal Herria Europa osoko zerrendan goian dago: “Behin behinekotasun mailan eta gazteen langabezian hirugarren postuan gaude, eta emakumeak eta gazteak dira lan prekarietatea eta langabezia gehien sufritzen ari direnak”. Zer zentzu du gehiengoaren bizi baldintza txarren arduradun den EAJrekin elkarriketan jarraitzea, bere politiken aurka eta langile klasearen, emakumeen duintasunaren eta gazteen etorkizunaren alde gogor borrokatu beharrean?

Gure arazoen konponbidea eta autodeterminazio eskubidea ez dira zapalkuntzarekin eta prekarietatearekin jarraitu nahi dutenen eskutik etorriko. EAJri eta euskal burgesiari ez zaio interesatzen langile klaseak eta gazteak ezertan erabaki dezaten. Aitzitik, nahiago du erabakiak inork aukeratu ez dituen eliteak, bankariek eta enpresari handiek har dezaten. Ezkututzen saiatu arren, argi dago ez dutela PPrekin edo behar denarekin elkartzeko inolako arazorik, beren interesen defentsarako bada. Hori dela eta, gure aldarrikapenak eta erabakitze eskubidea lortzeko eta murrizketekin, etxe kaleratzeekin eta langabeziarekin bukatzeko bidea ez da horien arduradunekin hitz egitea, kalean borrokatu eta mobilizatzea baizik. Langileen eta gazteen borrokak elkartu eta kalera tinko eramatea eta estatu espainiar eta frantziarreko nahiz nazioarteko mugimendu sozialekin elkartzea da bidea; borroka horretan Euskal Herriarentzat eskubide demokratikoak ere txertaturik biraketa itzela eman ahalko genuke. Gure aliatua ez da izango inoiz euskal burgesia, munduko langile eta zapalduak baizik. Eskubide sozialen eta demokratikoen aldeko borroka bakarra da: Euskal Herri sozialistaren aldeko borroka.

ANTOLATU ZAITEZ

EZKER IRAULTZAILEAN!

ESKUINAREN MURRIZKETEN ETA GURE ESKUBIDEEN
AURKAKO ERREPRESIOAREN AURKA!

KONTRAPORTADAN HASTEN DA

Ikasle Sindikatuak urriaren 26rako hezkuntza komunitateko greba orokorrera egindako deia adibide bikaina da. LOMCEk eta errebalida frankistek milaka gazte bigarren hezkuntzatik kanporatu nahi ditu, eta unibertsitaterako sarbidea itxi nahi diete. PPren Gobernuaren motibazioa hauxe da: langile familietako gazteen etorkizuna prekarietatea eta lan zapalkuntza bada, zertarako gas-tatu dirua beren hezkuntzan?

Ezker Iraultzaileak aktiboki babesten du U26ko ikasle greba, eta uste dugu mobilizazio soziala berreskuratzeko abiapuntutzat hartu be-

har dela. Hori dela eta, EH Bilduko eta Elkarrekin Podemoseko zuzendaritzei eskatzen diegu ez daitezela mugatu Parlamentuko oposizioa, ez dezatela itunik egin EAJrekin eta ez daitezela erori sistemako gainerako alderdien planteamenduetan. Masen mobilizazioa sustatzeko ardura dute, M15ekin, greba orokorrekin eta gure herriaren eskubide demokratikoen al-

deko borrokarekin hasitako borroka berreskuratu behar dute.

Antolatzeke garaia da!

Ezker Iraultzailea osatzen dugun Euskal Herriko langile eta gazteok Ikasle Sindikatu, langile klasearen borroketan eta mugimendu sozialetan parte hartzen dugu programa antikapitalista, sozialista eta internazionalista defendatuz. Ez gara konformatzen noizean behin bozkatzera joanda. Aritmetika parlamentarioek ez dute lortuko euskal burgesiaren edo burgesia espainiarraren edo europarraren planak atzera botatzea. Kapitalistak garaitu nahi baditugu, azken urteetan eskuina kinka larrian jarri duen altxamendu sozialean sakondu behar dugu; eta borroka hau antolakuntza iraultzaile bilakatu behar dugu gure ikastetxeetan, enpresetan, lantokietan, herri, hiri eta auzoetan. Herriak bakarrik salba dezake herria.

Antola zaitetz Ezker Iraultzailean!

Parte hartu Ezker Iraultzailearen taldeetan unibertsitatean, institutuan eta lantokietan!

Helbide hauetan bat egin dezakezu gurekin:

www.euskalherriasozialista.net / www.izquierdarevolucionaria.net

- LOMCE, errebalida frankistak eta 3+2 atzera botatzearen alde. Hezkuntza publiko duina, demokratikoa eta doakoa haur eskolatik unibertsitatera bitartean.
- Osasun duina, doakoa eta unibertsala guztiontzat.
- Etxe kaleratzeak legez debekatzea. Etxebizitza publikoak alokairu sozialekin, bankuen esku dauden etxebizitza hutsak desjabetu behar dira!
- Lan erreformak eta pentsioen erreforma indargabetzea. Erretiroa 60 urterekin, soldataren %100arekin eta gazteentzat errelebu kontratuarekin.
- Benetako elkartasuna errefuxiatuekin: ez kuporik, zentro itxirik! Atzerritarren Legea indargabetu behar da eta CIEak itxi!

- Pribatizatu dituzten zerbitzu publikoan bermunizipalatu behar dira, langile kopurua mantendu edo handiagotuz eta lan eskubideak bermatuz.
- 1.100 euroko oinarritzko soldata eta 35 orduko lan astea soldata jaitsi gabe.
- Adierazpen, elkartze eta antolatze eskubideak bermatzea. Mozal legea indargabetzea.
- Bankaren eta ekonomiako sektore estrategikoen nazionalizazioa pertsonak salbatzeko eta gehiengoaren ongizatea bermatzeko.
- Catalunyaren, Euskal Herriaren eta Galizaren autodeterminazio eskubidearen alde. Euskal Herria sozialistaren eta errepublika sozialistaren alde.

Autodeterminazio eskubidearen eta presoen amnistiaren alde

Gure indarra kalean dago! Itunik ez EAJrekin!



Euskal Herriaren askapen nazional eta sozialaren borrokak, hau da, sozialismoaren aldeko borrokak, erabat loturik joan behar du presoek eskubideen eta amnistiaren aldeko borrokarekin.

IKER OTERMIN

Gaur egun 351 euskal preso daude; horietatik 348 sakabanaturik daude, gehienak Estatu espainiarrean eta frantsesean, 400 eta 1.100 km arteko distantzian. Horietako %95,5a lehen graduko erregimenean dago, gogorrean alegia. Lau adin txikiko daude beren amekin eta 14 preso larriki gaixorik, horietako 3 bakarrik daude espetxe arinduetan. Dispersioa zigor etengabe eta bidegabekoa da, ez soilik presoentzat, baita bere senideentzat ere; 16 pertsonak galdu dute bizia errepidean, bisitak egiteko bidaia amaigabeetan; eta 2016. urtean lau istripu egon dira. Desplazamenduetako arriskuez gain, dispersioak gastu ekonomiko oso handia dakar. Presoaren senideentzat komunikazioa bermatzeko batz besteko gastua urtean 20.000 euro ingurukoa da!

Nahiz eta 6 urte pasa diren ETak armak utzi zituenetik, PPK, PSOEko zuzendaritzak eta EAJk politika kriminal horri amaiera ematetik urrun, errepresio politika berdina aplikatzen jarraitzen dute. Beren helburua da mobilizazioa kriminalizatzea eta langile klasearen eta gazteriaren mugimenduari mehatxuzko mezua igortzea. Bestalde, beren murrizketa politikak eta bankari eta enpresari handien aldeko politika guztiak modu desesperatu batean ezkutatzeko saiakerak ere bada, Mozal Legea bezalako neurri errepresiboak indartzen dituzten bitartean. Nazioartean bezala, hemen ere burgesiak terrorismoaren aurkako borroka estalki gisa erabiltzen du arreta "suntsitu beharreko etsaiarengana" bideratzeko eta, horrela, aparatu polizial eta errepresiboa indartzeko. Komunikabide guztiak erabiltzen dituzte

gatazkaren eta ekintza terroristen benetako erruduna beren irabazi eta pribilegioak bermatzeko gauzatzen dituzten basakeriak eta zapalkuntza direla ezkutatu nahian; horrela langile klasearen zatiketa bultzatu nahi dute. Burgesia bera da ekintza terroristak inoiz ez desagertzean interesatuenak, eskuina indartzen baitute eta langile klasearen eta gazteriaren mugimendua ahuldu.

EAJk dispersio politika antolatu eta bultzatu zuen

Estatu espainiarreko egungo agertokian, PPK eta EAJk duten papera, lehenak *polizia gaiztoarena* eta besteak *polizia zintzoarena*, antzerkitxo bat besterik ez da eskuinaren benetako interesak mantentzeko, espainiarrarenak nahiz euskaldunarenak. Horregatik, hanka sartzea da eta, gainera, ezkerretik maskara demokratiko eta errukitsu bat oparitzea da EAJrekin kontaktzea presoek eskubideen defentsan; hain zuzen ere, EAJ izan da estatu aparatuko errepresio makinaria guz-

tia eta komunikabideak kontrolatzen dituen EAEn.

EAJren ibilbidea argia da bide horretan: 1989ko maiatzaren 4an iragarri zen publikoki presoan dispersio politika, Argeleko elkarrizketak apurtu eta hilabete geroago. Bi urte lehenago, EAJk eta PSOEk gobernu itun bat erdietsi eta Ardanza jarri zuten lehendakari. 1988ko urtarri-lean sinatu zuten Eusko Jaurilaritzan Ajuriaeneako ituna alderdi guztiek HBk izan ezik. Itun horren buruan EAJ eta PSOE zeuden, eta errepresioa gogortzeko plan bat besterik ez zen. Hortik aurrera EAJ dispersio politikaren defendatzaile sutsuena izan da, eta argi utzi dute hori, behin baino gehiagotan alderdiko ordezkari nagusiek: “Dispersioaren politikak ez du giza eskubideen bortxarik suposatzen” (Arzallus, 1989); “Dispersioa ETA eta Gobernuaren arteko gudaren aspektu bat da. Arma politiko bat da” (Arzallus, 1990); “Beti babestu izan dugu dispersio politika... Gobernuaren politika zuzena dela uste dugu” (Anasagasti, 1992); “Kartzeletako dispersioa onuragarria da, askok askatasunean irabaztea baimendu duelako eta ETArek estrategia apurtzen duelako” (Egibar, 1993); “Dispersioa ez da legez kanpokoa” (Atutxa, 1995).

Morala apurtzeko isolamenduak, jipoiak, kartzeletako umilazioak eta

senideen sufrimendua erabili zuten bitartean, sarien politika erabili zuten publikoki beren damua adierazten zuten presoekin. EAJ inoiz ez da izango aliatua eskubide demokratikoen defentsan. Bere diskurtso eta posizionamendu demagogikoa aurpegi garbiketa bat besterik ez da benetako ekintzak ezkutatzen saiatzeko: dispersioa antolatzen duen eta egun errepresioa antolatzen du. Beharrezkoa da bere demagogiaren aurkako konfrontazioa eta mota guztietako itunak ukatzea.

Altsasu, Gasteizko Herri Harresia: errepresioak ez du amaierarik

Altsasuko muntaia judizial eta mediatikoa oso adibide argia da; Estatu espainiarraren eta PPren errepresio jarduna baretzetik urrun, indartu egiten dela erakusten du. Fiskaltzak bi Guardia Zibil inplikaturik zeuden taberna bateko istilua ekintza terrorista gisa salatu izanak 11 gazteren atxiloteta eragin du, eta horietatik zazpi 10 eta 15 urteko kartzela zigorrak jasotzeko arriskua dute. Defentsak aurkezturiko zazpi helegiteetatik bost ukatu ditu Auzitegi Gorenak eta hiruk Soto del Realen (Madril) jarraitzen dute ustezko ihes egiteko arriskuegatik. Gainera, muntaia horretan guztian ikusi ahal izan dugu, nola

aprobatxatu den *Alde hemendik!* bezalako mugimendu sozialak etengabe kriminalizatzeke.

Ertzaintza eta EAJ ez dira atzean geratzen errepresioan eta Mozal Legearen aplikazioan. Horren adibide garbia dira Gasteizko herri harresian parte hartzeagatik zortzi gazteri inposaturiko isunak (buruko 1.080 euro ordaindu beharko dute, eta gastu judizialekin batuta guztira 16.000 euro izango dira) edo Ikasle Sindikatuak urriaren 26an errebaliden aurka Bilbon deituriko manifestazioan gazte bati ezarritako isuna eta azaroaren 24an Leioan izandako karga polizialak.

Borroka iraultzaileak mobilizazio masiboan eta zapaldu guztien batasunean oinarritu behar du

Estatu aparatua eta eskuina mobilizazio sozialaren gorakadaren aurrean erantzun errepresibo baterako prestatzen ari dira. Barne Ministerioaren datuen arabera, Mozal Legea 2015eko uztailaren indarrean sartu zenetik zazpi hilabetera, 40.000 pertsona zigortu dituzte, besteak beste, agenteenganako “errespetu faltagatik” edo “autoritatearenganako erresistentziagatik” eta bost aldiz biderkatu dira “terrorismoa goratzeagatik” epaiketak.

Errepresioa da estatu aparatua erantzuna sistema kapitalistak eragiten duen zapalkuntzaren aurrean, zapalkuntza nazionala barne, borrokatzen dugun gazte eta langileen aurka. Hain zuzen ere, borroka hori geldiarazteko saiakerak da, beldurtu eta sakabana gaitzaten. Baina historikoki frogatu den bezala, errepresioa beren aurkako itzultzen da mobilizazioa goraka doan garaietan. Horregatik, errepresioaren aurrean eman daitekeen erantzunik hoberena gazteen eta langileen mobilizazioa eta antolakuntza iraultzailea areagotzea da, erantzun masibo baten baitan, Euskal Herriko eta munduko gainerako klaseko anai-arrebekin batera, mugak nazionalen gainetik.



MIGUEL CAMPOS
Esquerra Revolucionària

Milioitik gora pertsona atera ziren kalera 2012ko eta 2013ko Diadetako mobilizazio ikusgarrietan. Kataluniako gizarteko hainbat geruzek beren nahia erakutsi zuten, erabateko aldaketa politiko eta sozial baten nahia. Milaka gazte eta langileren gogoan zegoen eskubide demokratiko-nazionalen zapalkuntzaren aurkako eta autodeterminazio eskubidearen aldeko borroka hori guztiz lotua dago krisi kapitalista eragiten ari den ondorio dramatikoak behin-koz amaitzearekin: politika pribatizatzaileak eta murrizketa sozialak geldiaraztea, ez soilik PPK gidatzen duen espainiar burgesiak egindakoak, baita Convergenciak (orain PDCat) ordezkatzan duen burgesia katalanak egindakoak ere.

Desberdintasun tasa EBko altuenen artean dago Katalunian. Errenta handienak dituen biztanleriaren aberastasunaren %20a beste %20 txiroenarena baino sei bider handiagoa da. 2013 eta 2014 artean, pobrezia larrian zeuden biztanleen kopurua %28,57 igo zen; %9,1etik %11,7ra igaro zen Entidades Catalanas de Accion Socialen-en (ECAS) txosten baten arabera. Erakunde horretako lehendakariaren arabera “Katalunian pobrezia gero eta larriagoa da, gero eta luzeagoa, zabalagoa; eta bertatik irteteko geroz eta zailtasun gehiago ditugu eta, aldi berean, gizarte katalana gero eta polarizatuago dago”.

Gutxi batzuen aberastasunaren eta gehiengoaren sufrimenduaren arteko amildegiak sortzen duen ezinegonak izan zuen bere isla Kataluniako Asanblada Nazionalen eta dagoeneko aipatu dugun Diada jendetsuetan. Era berean, aldaketa nahi horren ondorio izan zen bai ERCk izandako hazkundea 2015eko hauteskundeetan bai CUPen agerpen indartsua erakunde independentista eta antikapitalista bezala.

CUPen hazkundea errepresio nazionalaren aurkako borrokaren

Kataluniaren au eskubid

Eskuin katalanareki CUPek Convergenciar



erakusle izan zen, baina baita sistema kapitalistaren aurkakoa ere, masetako sektore zabalek babestua. Oinarriek eta bozkatu zutenen gehiengo handi batek espero zuten PPren eta Convergenciaren politika pribatizatzaile eta antisozialen aurkako kaleko borroka indartsu bat bultzatzeko balioko zutela hauteskundeen emaitzek, eta borroka horiek Kataluniaren askapen nazional eta soziala konkistatuko zuen mugimendu baterako lehenengo pausoak izango zirela. Alabaina, CUPeko zuzen-

daritzak Convergenciarekin itunak egiteko beharra defendatu du, eta horrek praktikan kaleak bertan behera uztea esan nahi du, murrizketa eta pribatizazioen politika mantentzea, autodeterminazio eskubidearen edonolako gauzapearen aldeko aurrerapausoei oztopoak jartzea: hau da, esku eta hanketatik burgesia katalanari lotzea. CUPen oinarria argi eta garbi agertu zen Mas eta Convergencia babestearen aurka egin ziren kontsultetan, baina, ondoren, CUPeko zuzendaritzak, mo-

Autodeterminazio erari bai!

n itunak egiteari ez! ekin apurtu behar du!



du antidemokratiko batean Puigdemont buru izango zuen eskuinaren *Govern* berri baten alde egin zuen.

Puigdemonten *Govern* berria: murrizketa eta pribatizazioak mantentzen dira baina ez da gauzatzen autodeterminazio eskubidea

Urtebete beranduago, milioika gazte eta langilek beren buruei egiten dien galdera da: balio izan al du Junts pel Síren *Governari* eman-

dako babesak Kataluniaren askapen nazionalean aurrera egiteko eta *Convergencia* zenbait politika sozial onartzera behartzeko, CUPeko zuzendaritzakoek aurkezten zuten bezala? Erantzuna argia da: Ez!

Govern berria osatzean ikusi du-gu beren negozioei eragiten dieten gaitan *Convergencia* ez duela dudarik izan PP edo Ciudadanosen alboan bozkatzeko Parlamentean. Hala jokatu dute, besteak beste, sexu bereizketa egiten duten eskolei hezkuntza kontzertuak deuseztat-

zeari ezetz esan diotenean eta eskola pribatuaren kontzertuak progresiboki bertan behera utziko zituen ILP bat eztabaidatzea eragotzi dutenean, baita 3+2a unibertsitate katalan publikoetan aplikatu dutenean estatuko beste edozein tokitan baino lehen, banka publiko baten sorrera eragotzi dutenean, aurrekoarekin alderatuz guztiz deskafeinatua den etxe kaleratzeen lege berri bat onartu dutenean; azkenean lege hori PPri esker Konstituzionalean bertan behera gelditu da eta, gainera, *Convergencia* inoiz ez zuen aplikatu indarrean egon zen bitartean.

Bestalde, nahiz eta publikoki Alderdi Popularraren aurka agertzen den, Kongresuan ikusten dugu *Convergencia*ren talde parlamentarioa PPekin akordioetara iristen dela Kongresuko mahaia osatzeko edo PPren erreformen aldeko botoa mantentzen duela. Diskurtsoetatik landa, PP eta *Convergencia*ren saiakera etengabe bat dago haien sistemen "egonkortasuna" bermatze aldera, nola Espainian hala Katalunian. Denaren gainera beti dauka haien klase interesak!

"Erabakitze eskubidea" gauzatu ahal izateko eta murrizketekin amaitzeko, CUPek eskuinarekin moztu behar du!

Edonola ere, CUPek eta ERCk *Convergencia*ri emandako babesak ikuspuntu sozial batetik gaitzesgarria izateaz gain, eskubide demokratiko eta autodeterminaziorako eskubidearen ikuspuntutik ere hala da. *Convergencia* bere aurrekontuak onartzeko CUPen babesaren premiak bultzatuta, berriro ahoa independentismoz bete du dotoreziatzeko goi-bileren artean. Halere, bistan dago zein den bere egiazko helburua, eta ez du inolako zerikusirik independentziarekin eta erabakitze eskubidearekin. CUP konprometitu nahi du bere botoekin aurrekoen jarraipen bera diren aurrekontuak babesteko, urte luzez

10. ORRIAN JARRAITZEN DU

CiUren negozioen eta ustelkeriaren iturri izan diren eta murrizketak aplikatu eta hezkuntzako nahiz osasungintzako kontzertuak mantenduko dituen aurrekontuak babesteko. Izan ere, Convergenciak ez du interes zipitzik gazte eta langileek haien etorkizunaz erabaki eta eskubide demokratikoak konkistatzatzen. Horrelako diskurtsoak eta ERCren desobedientziarako deialdiak entzuten diren bitartean, Mossos d'Esquadrek, Junts pel Síren Governaren poliziak, Bergako CUPEko alkatea atxilotzen dute udaletxetik *estelada* kentzeari uko egiteagatik eta orain dela gutxi bost ekintzaile atxilotu dituzte Diadaren egunean erregearen argazkiak erretzeagatik. Ze froga gehiago behar du CUPEko zuzendaritzak ikusteko Convergencia-rentzat eta Govern berriarentzat estatu burujabetza lortzeko eta Estatu espainiarra desobeditzeko duten ustezko asmoa masen arreta desbideratzeko eta kalean bakea mantentzeko hitzak baino ez direla?

Historian zehar, desobedientzia gauzak errotik aldatzeko erabili izan den arma da, baina modu eraginkorrean eraman behar da praktikara. Kataluniako prozesua ez da jarraitu beharreko eredu Euskal Herrian zapalketa nazional eta sozialaren aurka borrokatzen duten milioientzat, baina baditu kontuan hartu beharreko ikasgai garrantzitsuak akats berberak ez errepikatzen: burgesiaren eskutik ezinezkoa da biztanleen gehiengoarentzat inolako hobekuntza sozialik edo demokratikorik lortzea. CUPEk, eskuinarekin duen harremana apurtuz gero, bere eskuetan dauka bai autodeterminazio eskubidea bai etxebizitza duin zein hezkuntza eta osasun publiko, doako eta kalitatezkoa konkistatuko dituen mugimendu indartsu bat altxatzea kalean, PPren eta Convergenciaren aurka borrokatzen dugun milioien mobilizazio eta antolakuntzaren bitartez. Hortaz, orain, inoiz baino gehiago, beharrezkoa da aurrera pauso sendo bat emanez eskuina, alegia, erasotzen eta zapaltzen gaituztenak kanporatzea eta kalera itzultzea, gutxi batzuek gehiengoari ukatzen dioten eskubide demokratiko eta bizitza duin baterako baldintzak lortzeko.



AEB: polarizazio eta konfrontazio politikoa kapitalismoaren bihotzean



URTZI REGUERO

Donal Trumpen garaipenak benetak astinaldia eragin du Ipar-amerikako sistema politikoan, baina haren ondorioek munduko ekonomian eta potentzia handien harremanetan ere eragingo dute. Trump hautagai multimilioduna da; programa erabat atzerakoia du, eta arrazismoa eta etorkinen eta langile mugimenduaren aurkako errepresioa aldarrikatzen ditu. “Lehenik AEB” leloarekin nazionalismo ekonomiko defendatzen du globalizazioaren aurrean. Era berean, gezur merkea erabili du bere burua sistemaren aurkako alternatiba gisa aurkezteko stablishment politikoaren, Wall Streeten eta militarren ordezkari bikaina den Hillary Clinton garaituz.

Edonola ere, esanguratsuen parte hartzearen beherakada nabarmena izan da, milioika langile eta gazteek hauteskunde horien au-

rean erakutsi duten indiferentzia-rean erakusle. Datuak adierazgarriak dira: Clintonek Obamak 2012an eskuratuak baino 6 milioi boto gutxiago lortu ditu, eta 2008koaren aldean 10 milioi gutxiago. Trumpek Romneyk 2012an lortutakoak baino 1,1 milioi gutxiago eta 2008an McCainek eskuratuak baino 200.000 gutxiago. Nabarmenezkoa da alderdi demokratiko botoen beherakada, batez ere, industria guneetan. Hala ere, boto horiek ez ditu Trumpek jasotakoak, eta hori garrantzitsua da. Bere garaipena, batez ere, herrialdearen mendealdean eta erdialdean izan da, tradizionalki atzerakoia izan diren nekazal eskualdeetan.

Langile klasearen eskuinerako biraketa? Sanders fenomeno

Datuak gezurtatu egin dute komentaria askok, baita beren buruak aurrerakoitzat dituzten batzuek ere,

egindako baieztapenak: langile klase zuria ez da izan faktore garrantzitsua atzerakoi hori presidentetza-ira heltzeko. Analisi horiek ez dituzte azaltzen fenomeno horien oinarrian dauden joerak: kapitalismoaren krisiaren sakontasuna, bankuak eta finantza-oligarkia salbatzeko neurriak, herritar sektorean gorantz doan langabezia eta pobrezia, polarizazio sozial eta politikoa, alderdi tradizionalen krisia eta milioika zapalduak sistema honekiko duten haserre.

Izatez, Trump garaitua izan zitekeen baldin eta Bernie Sandersi egin izan balio aurre Clintoni beharrean. Alderdi Demokrataren primarioetan, Sandersen arrakastak —bere burua “sozialistatzat” aurkezten zuen eta Wall Street eta %1 multimiliodunaren aurkako iraultza politikorako deia egin zuen— erakutsi zuen langile klasea, gazteria eta geruza ertaineko sekto-

re handi bat ezkerredera biratu dela. Aparatu demokrata aurka izan eta etengabeko boikot kanpaina egin badu ere, Sandersek mitinetan milaka eta milaka pertsona mobilizatzea lortu zuen, milioika dolar eskuratu zituen pertsona xume, sindikatu eta bizilagun elkarteengandik, banku eta enpresa pribatuetatik zentimorik jaso gabe.

Sandersen lurrikarak alarmak piztu zituen aparatu demokratikoa eta klase agintariarengan, eta baliabide guztiak erabili zituzten garaipena saihesteko. Bernie Sandersek amore ematea eta ezkerreko hautagai independente bezala ez aurkeztea lortu zuten. Gertakari hori erabakigarria izan da hauteskundeetan eta abstentzio indartsuan: Sandersek bere desertzioa eta Clintoni emandako babesak justifikatu zuen esanez Trump garaitzeko alternatiba hoberena zela, baina ikusi denez, amore emateak hautagai errepublikanoaren aurreikuspenak eta emaitzak hobetu ditu.

Donald Trump, sistemaren aurkako hautagaia?

Hasieran, gutxiak uste zuten Trump izango zela errepublikanoen hautagai. Klase agintariko sektore handi batek Clinton babesten duen arren, Trumpek beste sektore garrantzitsu bat ordezkatzen du; hain zuzen ere, inperialismo estatubatuarren mundua dominatzen zuen garaia faltan sumatzen duen sektorea. Sektore hori mobilizazio sozialaren eta etor daitekeen iraultzaren beldur da, eta uste du autoritarismoa, militarismoa eta herrialde barruko nahiz kanpoko errepresioa dela bide egokiena. Horiek gora egiteak erakusten du nola Ipar-amerikako kapitalismoa barne oreka galtzen ari den. Azken finean, Trump iparramerikar gizartearen dagoen polarizazio prozesuaren txaponaren aurpegi bat da.

Dena den, ez dugu geure burua engainatu behar: Trumpek eta Clintonek helburu inperialista berbera dute, eta Clintonek, lehenago Oba-



mak bezala, murrizketa sozialak, errepresio poliziala erabiltzea eta borroka sozialaren gorakada saihesteko eskubide demokratikoei erasotzea defendatzen du.

Clinton, hautagai aurrerakoa?

Hillary Clinton ez da izan inoiz Trumpen alternatiba aurrerakoa. Gogora dezagun hauteskundeak baino aste batzuk lehenago izandako eskandalua, WikiLeaks-ek Hillary Clintonen mezu elektronikoko batzuk argitaratu zituenean. Bertan, besteak beste, mespretxuz hitz egiten zuen etorkinez eta gutxiengo erlijiosoez, “aberatsen gobernua” aldarrikatzen zuen aberats izateagatik “lapurtuko ez luketelako”. Gainera, Ekuadorren Londresko enbaxadara dron bat bidaltzea defendatzen zuen Julian Assange hiltzeko. Bestalde, telebistako eztabaidetan Clintonek argi utzi zuen bere programa zein den: AEBren paper inperialista defendatzea eta Ekialde Hurbilean esku hartze militarra areagotzea.

Hillary Clinton herrialdeko establishment politiko eta ekonomi-

koaren hautagaia zen, herrialdeko monopolio kapitalista handiena, finantza elitearena. *The Wall Street Journal* egunkariak argitaratu zuenez, milioi batek emandako 88 milioi dolarretatik, 70 milioi jaso zituen Clintonen kanpainak; aldiz, 18 milioi jaso zituen Trumpek. Bestalde, Clintonek kargu militar errepublikano zein demokrata ohien babesa ere jaso zuen.

Historiako administrazio ultraeskuindarra

Trumpen garaipena beldurgarria izan bada, are beldurgarriagoak dira gobernukideak. Zalantzarik gabe, AEBren historiako administrazio ultraeskuindarra izango da berea: Fiskal Nagusiaren kargua Jeff Sessionsek hartuko du; eskubide zibilen aurkari ezaguna da eta Mexikoko mugan harresia eraikitzea eta legez kanpoko etorkinak deportatzea sutsuki defendatu du. CIAko zuzendaria Mike Pompeo izango da, herritarrak legez kanpo espiatzearen defendatzailea. Gainera, Tea Partyko eta Erriflearen



Erakunde Nazionaleko kide ezaguna eta abortuaren aurkako ekintzaila ere bada. Segurtasun Nazionaleko aholkularia Michale Flynn izango da, Obamak kargutik kendu zuen musulmanen aurkako fanatismoagatik eta torturari eragozpen guztiak kentzea defendatzen du.

Izendatze aipagarriena kabinete buruarena da: Stephen Bannon. Gazte zenean beltzen eta emakumeen eskubide zibilen aurkako ekintzaila izan zen, eta orain ezagunak dira Ku Klux Klan eta antzeko erakundeekin dituen loturak. Izendatu eta handik gutxira adierazi zuen bere helburua “mugimendu politiko berria eraikitzea” zela nazionalismo ekonomikoa defendatzeko eta beharrezko ikusten zuela “nazioaren” mesedetan borroka guztiak zapaltzea.

Milaka eta milaka pertsona kalean Trumpen aurka

Gauza bat argi dago: Trumpek ez du eztei arorik izango. Hasieratik aurrera egin beharko dio, batetik, kaosak dominatzen duen nazioarteko

egoera bati eta, bestetik, potentzien arteko tentsio militar eta ekonomikoko gero eta handiago bati. Datuek erakusten dutenez, posible da AEBn kapitalismoaren krisia areagotzea; eta, edonola ere, Ipar-amerikako klase agintariaren barne kontraesanak areagotuko dira eta sistemaren krisi historikoa agerian utziko dute.

Ikusiko da zein izango den Trumpen geroa, baina ezin da gutxietsi AEBko eta munduko langileen tzat, etorkinentzat eta gazteentzat dakarren mehatxua. AEBko ezker militantearen betebeharra da erresistentzia mugimendu indartsua eraikitzea eta presidente atzerakoi horren eta bere neurrien aurka borroka egitea. Eta horretarako baldintzak badaude: garaipenaren egun berean Trumpen aurkako protesta eta manifestazioak izan ziren New Yorken, Philadelphian, Seattlen, Chicagon, Oaklanden, Washingtonen eta Bostonen. Milaka eta milaka pertsonak parte hartu zuten, batez ere gazteek.

Trumpen administrazioak bere programa aplikatzea erabakitzen

badu, beharrezkoa izango da erasoaren neurrira egongo den erresistentzia eraikitzea masen mugimendurekin. *Socialist Students* gazte erakundeak ikasle greba deitu du “Donal Trumpi ez!” lelopean urtarrilaren 20rako, hain zuzen ere, Trumpek presidente izateko lehen urratsa eman eta karguari zin egongo dion egunean. Protestak mundu osoan izango dira AEBri elkartasuna erakusteko; eta bertan parte hartuko dute, besteak beste, Ikasle Sindikatuak eta Mexikoko CEDEP (Hezkuntza Publikoaren Defentsarako Batzordea) ikasle erakundeak. Halako bi aurrekari bakarrik dauka: 1973an Nixonen inbestiduran, Vietnamgo gerraren aurkako protesten garaian, eta 2001ean George W. Bushen inbestiduran.

Burgesiak sektore guztiek defendatzen duten programa da murrizketekin jarraitzea eta langile klaseari ordainaraztea krisi kapitalistaren ondorioak. Hala ere, Trumpen profil atzerakoi eta probokatzailak sistema osoa zalantzan jar dezakeen konfrontazio soziala eragin dezake.

Gobernu zentralak errebalida frankistak indargabetu ditu Borrokari esker lortu dugu!



IKASLE SINDIKATUA

Duela aste batzuk, errebalida frankistak indargabetzeko lege dekretua argitaratu zen Estatuko Agintaritzaren Aldizkarian. Errebalida horiekin Alderdi Popularrak milaka eta milaka gazte ikasgeletatik kanporatu nahi zituen, baina kaleko mobilizazioari esker hori geldiaraztea lortu dugu. Hori horrela, 2. batxilergoko azterketa lehenagoko Unibertsitate-ra Sartzeko Proba bezala gera dadin lortu dugu, ondorio akademikorik gabe; hau da, ez da beharrezkoa izango batxilergoko titulua eskuratzeko. DBH 4ko eta LHko errebalidei dagokionez, berriz, frogak ez dira nahitaezkoak izango, eta lagin izaera izango dute; hau da, ikastetxe jakin batzuetan egingo da. LOMCEren ildoan azarnak ere ezabatu dira, hau da, DBHko irakaskuntza akademiko eta aplikatuak egindako ikasleek titulu berdina izango dute, bereizketa-

rik gabe. Gainera, oinarritzko lanbide heziketako ikasleek ere DBHko titulua eskuratu dute. Horrek zera esan nahi du: errebalida frankistak deuseztatu ditugu eta langile familiarik milaka gazte hezkuntza sistematik kanporatuak izateko arriskutik libratu ditugu.

Errebalidak garaitu ditugu, orain LOMCEren txanda da

Garaipena azken urteotako milioika ikasleren borrokaren emaitza da: Ikasle Sindikatutik 24 greba orokor antolatu ditugu LOMCE eta errebaliden aurka. Batez ere erabakigarriak izan dira urriaren 26ko eta azaroaren 24ko greba historikoak. Egun horietan milaka ikasle atera ginen kalera Bilbon, Gasteizen, Donostian eta Iruñean, estatu mailan atera ziren milaka eta milaka gaztekin batera gure indarrak elkartuz. Guraso eta irakasleek gure alboan egin duten borroka-

ren emaitza ere bada. Zalantzarik gabe, borroka horren arrakastaren funtsezko puntuetako bat izan da Ikasle Sindikatutik ikasleen, irakasleen, gurasoen eta langileen elkarteak borrokan elkartzeko egin dugun ahalegina, baita borrokan dauden langileak babestekoa ere (garbitzaileena adibidez; azaroan greba eta mobilizazio astea egin baitzuten sindikatu guztiek ekintza batasunean). Langileok nahiz gazteok ulertzen dugu borrokatzen dugunean batasunak berebiziko garrantzia duela gure helburuak lortzeko. Horregatik ezin dugu ulertu Ikasle Abertzaleen jokabidea, mobilizazioa boikoteatzen saiatu baitira. Jokabide horren asmoa edozein izanik ere, eskuinari jokoa egitea besterik ez du lortzen, bereziki EAJren Eusko Jaurlaritzaren gezurren eta boikotaren kanpainari.

Garaipena ez da gobernu "berriaren" jarreragatik izan, ezta ministroaren ez beste inoren negoziatzeko



trebetasunaren emaitza ere. Nahiz eta batzuk arrakasta hori beretzat hartzen saiatu —PSOEn barnean Mariano Rajoyri gobernua oparitu berri diotenak esaterako—, mobilizazioa eta klase arteko borroka izan dira PPren gobernua beraientzat hain estrategikoa zen puntu horretan amore ematera behartu dutenak. Kosta ahalakosta, formakuntzarik eta kulturarik gabe nahi gaituzte langile familietako gazteak. Horretarako plan ezin hobea ziren LOMCE eta errebalidak, biharko egunean enpresetan gu explotatzeko erraztasun guztiak izateko. Halere, beren planetan ezinbesteko atala zapuztu dugu! Ez ditugu konbentzitu, kaleko borrokaren indarraren bidez behartu ditugu!

**Ez gaituzte engainatzen!
Hezkuntza publikoaren aurkako
estatu itunik ez!**

Hau lehenengo garaipena izan da, orain borroka jarraitzen du LOMCE erabat suntsitu arte, kontrarreforma frankista horretatik ezertxo ere gerra ez dadin. Gobernuari eta bere laguntzaileei —Ciudadanos eta PSOEko egungo zuzendaritzari— esaten diegu konkista hau ondo gogoan hartuko dugula; ez diegula utziko beren azpijoko berria, “Hezkuntza Itunaren” proposamena, murrizketen eta hezkuntza publikoaren erasoaren bidetik eraman dezaten. Ez gaituztela engainatzen esaten diegu, eta ez dela itunik egongo Marea Berdean borrokatu dugun milioika pertsonen aldarrikapenak ja-

so arte: hezkuntza publikotik lapurtutako 7.000 milioi euroak itzultzea, kaleratu zituzten 32.000 irakasleak berritro hartzea, LOMCE eta 3+2 guztiz indargabetzea, hezkuntza publikotik Eliza eta hezkuntza pribatuko patronalari diru mordo hori gehiago ez oparitzea. Eta azken urteotan hartu duten bidetik jarraitu nahi badute, argi izan dezatela: kalean erantzungo diegu!

**EAJ eta PPren erasoei aurre
egiteko, borroka berreskuratu
behar dugu!**

Ondorioa oso argia da: antolakuntzarekin eta kalean borroka eginez irabaz dezakegu eta deusezta ditzakegu PPren eta, noski, EAJren murrizketak eta erasoak. Dena dela, ondorio horiek hezkuntza publikoaren arloan baliotsua izateaz gain, balio handia dute arlo guztietan. Gobernu zentral berria oso ahula da. EAEn ere, PSEK pozik lagunduta, Eusko Jaurlaritza berria EAJren kontrolpean jarraitu dezan ziurtatzeko egindako trikima-lua mobilizazioari dioten beldurraren froga besterik ez da, baina ez dago langileen eta gazteen ezkutuan, bulegoetan, sinaturiko akordiorik, kaleko borroka eta antolakuntzaren indarrari aurre egin diezaiokeenik.

Gauzak alda ditzakegu mobilizazioarekin kolpea indartsu ematen badugu, eta ez dago ez gobernurik ez ministrorik hori eragozteko gai denik. Mezu hori zabaltzeko behar diegu langileei eta urte hauetan kalean

izan diren mugimendu sozialei: Marea Zuriari, CIE guztiak ixteko borrokatzen duten guztiei, errepresioa eta Mozal Legearen aurka, etxebizitzaren duin baten alde, kaleratzeen aurka edota lan baldintza duinak defendatzeko borrokatzen duten langile guztiei eta autodeterminazioaren alde borrokatzen dutenei. EAJrekin akordio bakar batek ere ez digu onurarik ekarriko, eta ez digu gure eskakizunak lortzea erraztuko! PPK gazte eta langileentzat duen plan beraren barnean daude. Murrizketak bultzatzen dituzte, hezkuntza eta osasun pribatizazioak babesten dituzte, gure gurusoak kaleratzen dituzte, familiak etxeetatik botatzen dituzte, euskarazko izenak jartzen dizkiete errealtatean PPrenak diren legeei, Heziberrirarekin egin duten bezala. Ez digute adarrik joko! EAJ ez da gure aliatua, gure klaseko etsaia baizik! Horregatik bide bakarra mobilizazioa eta borroka dira!

IBEX 35ak, bankari handiek eta milioiunek euren trikimailu guztiak zabaltzeko gurea dena ukatzeko, gu indargabetuak sentiarazteko, gauzak diren bezalakoak direla eta aldatzea ezinezkoa dela pentsatzeko. Baina garaipen honekin frogatu da hori gezur galanta baino ez dela, %1aren zerbitzuan dagoen propaganda. Gure indar guztiekin erasotzeko momentua da, estatu mailan eta nazioartean elitearen kontrolaren aurka borrokatzen dutenekin elkartzeko, gehiengoa garelako eta borroka aurrera eramateko prest gaudela erakusteko unea da.

ANTOLATU ZAITEZ EZKER IRAULTZAILEAn!

ESKUINAREN MURRIZKETEN ETA GURE ESKUBIDEEN AURKAKO ERREPRESIOAREN AURKA!

Ekainaren 26ko hauteskunde on-doren, etengabe izan dira eskuineko gobernua osatzeko saiakerak. Prozesu honen parte da IBEX 35ek antolatu eta Felipe Gonzalezek, Susana Diazek eta "baroiek" areagotu duten PSOEren krisia. Kapitalisten helburua da gobernu berriak murrizketak inposatzen eta gure oinarritzko eskubide demokratikoak zapaltzen jarraitzea, nazionalismo espainiarren bandera altxatuta, eta osasunaren eta hezkuntza publikoaren pribatizazioan, lan erreformetan eta lan prekarietatean sakontzea; eta berdin die Gobernua PSOEko parlamentarien abstentzioarekin lortu den edo hirugarren hauteskundeekin.

Euskal Herriko langile eta gazteok ondo dakigu zer den eskuineko gobernua izatea, bai Madrilen PPrekin, bai EAEn EAJrekin eta bai Nafarroan UPNrekin. Azken urte hauetan gogor jasan ditugu beren politikak eta hauen kontrako mugimendu indartsua eraiki dugu. Hauteskundeetan ere, gure altxamen-
duak aldaketa handiak ekarri ditu. Podemosen agerrerak edo EH Bilduri emandako babesak erakusten dute gizartea aldatzeko milaka eta milaka gazte eta langileok dugun borrontea. Hala ere, aldaketa hau ez da lortuko parlamentuetako eztabailetan, ezta hauteskundeetan emaitza bikainak lortuta ere.

Greziako esperientzia oso baliagarria da hau ulertzeko: greziarrek Syriza jarri zuten gobernuan, Troikaren inposizioen aurkako erreferendumean masiboki bozkatu zuten, baina Tsiprasek indar honi guztiari bizkarra eman eta botere ekonomiko handien aurrean makurtu zen. Greziarako balio duenak, Euskal Herriarako eta Estatu espainiarerako ere balio du. Kapitalismoak ez du funtzionatzen zentzu komunaren, logikaren eta gehiengoaren onuragarri denaren arabera. Enpresari handien eta bankarien interesen arabera funtzionatzen du, beraiek kontrolatzen dituzte Estatua eta botere politikoaren palankak. Inork aukeratu ez duen baina burdinazko eskuarekin agintzen duen elite pribilegiatuarekin hautsi ezean, diskurtso "aurrerakoiena" ere antzu geratzen da.

Mobilizazioa eta programa iraultzailearen defentsa

Eskuina eta bere erasoak garaitzeko bide bakarra daukagu: mobilizazio indartsu eta denboran luzatuko dena eta sufritzen ditugun arazoaren muinera joango den programa defendatzea, hau da, kapitalismoarekin amaituko duen programa iraultzailea.

5. ORRIAN JARRAITZEN DU

EZKER IRAULTZAILEA

**Defendatu sozialismoaren aldeko ideiak gurekin!
Lagun iezaguzu aldizkaria Euskal Herri osoan zabaltzen!**

**www.euskalherriasozialista.net • euskalherriasozialista@hotmail.com • Tel.: 685 720 939
Twitter: @EHSozialista • Facebook: Euskal Herria Sozialista**

**EGIN ZAITEZ HARPIDEDUN! LAGUNDU LANGILEEN PRENTSA ZABALTZEN!!!
Lagun iezaguzu sozialismoaren aldeko borroka bultzatzen zure harpidetzarekin!!
Urteko harpidetzak (6 ale) 10 euro balio du.**